


Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreak % 4,4 egin du behera 2011ko hirugarren hiruhilekoan

Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, % 0,0ko tasa erregistratu du

Euskal AEko eraikuntza: EUSTATEN datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneoari dagokionez, Euskal AEko Eraikuntzaren sektoreak urte arteko % 4,4ko beherapen nominala izan du 2011ko hirugarren hiruhilekoan.

Estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean, 2011ko hirugarren hiruhilekoan Eraikuntzaren sektoreak % 0,0ko tasa erregistratu du, 2011ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

1. grafikoa: Euskal AEko Eraikuntzaren Koiunturako Indizearen urte arteko hiruhileko hazkunde zuzendua Guztira, Eraikuntza eta Obra Zibila (%)



Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Eraikuntzaren sektoreak 2011ko hirugarren hiruhilekoan behera egin du, Eraikinen eta Obra Zibilen azpisektoreek emaitza negatiboak izan dituztelako; Eraikinen azpisektoreak urte arteko % 5,3ko beherakada izan du, eta Obra Zibilarenak % 2,9koa.

Hiruhileko arteko datuei dagokienez, sektoreak 2011ko hirugarren hiruhilekoan eta aurreko hiruhilekoan izan duen jarduera alderatuz gero, ikusten da Eraikinen azpisektoreak % 0,4ko bilakaera positiboa izan duela; Obra Zibilen azpisektoreak, oster, % 0,7ko beherakada erregistratu du.

Eraikuntzaren sektoreko enpleguak %1,4 egin du behera, 2011ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta.

1. taula: Eraikuntzaren Koiunturako Indizea Euskal AE 2011ko 3. hiruhilekoa. Aldakuntza tasak (%).

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazonalizatua	
	11 3.hir / 10 3.hir	At/At-1 (1)	11 3.hir / 11 2.hir	11 2.hir / 11 1.hir
Produkzioaren indizea	-4,4	-9,0	0,0	-6,3
Eraikuntza	-5,3	-10,2	0,4	-7,1
Obra zibila	-2,9	-6,7	-0,7	-4,8
Landunen indizeak	-	-	-1,4	-1,6

(1) t urteko lehen hiruhilekotik t urteko azken hiruhilekora arteko aldi metatuaren urte arteko aldakuntza-tasa, t-1 urtearen aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Euskal Aeko Eraikuntzaren koiunturako indizea. (EKI)

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Eraikuntzaren koiunturari buruzko indizea (EKBI); datu-bankua